



Nuria Revuelta | ELGOIBAR IKASTOLA

1. saria

(<http://www.elgoibarikastola.eu>)

LEHEN HEZKUNTZA II

“IKASLEEK HASIERA-HASIERATIK IZAN DUTEN MOTIBAZIOA IZUGARRIA IZAN DA”

Nuria Revuelta da Elgoibar Ikastolako “Bostakoak” taldeko irakasle arduraduna. Talde horrek, hain zuzen, Kosmodiseako lehenengo saria irabazi du Lehen Hezkuntza II etapan. Irakasle honek adierazi duenez, parte hartzen duten lehenengo aldia dela kontuan izanda *“oso positibotzat jo dugu, nahiz eta hasieran galdu samar ibili ginen eta dezente kostatu zitzaigun eritmoari heltzea”*.

- Zure ustez, ekimen honetatik zer iruditu zaie interesgarriena ikasleei?
- Batez ere, teknologia berriak erabiltzea. Lehen sekula erabili gabeko programak erabiltzea oso interesgarria iruditu zaigu. Bestalde, Kosmodiseak taldeko lana sustatzen du, eta ikasleek oso gustura jardun dute, nola talde handietan, hala txikietan.

- Zer iruditu zaizkie emaitzak ikasleei?

- *Ezin hobeto! Emaitzak oso onak izan dira eta.*

- Zure iritziz, Kosmodisean parte hartuta, ikasleek zer balio positibo eskuratuko dituzte?

- *Arestian aipatu dudan bezala, taldeko lana. Batak besteari entzuten ikastea, txandak errespetatzen jakitea, iritziak ematea, lanak banatzea... Hori guztia ezinbestekoa izan da Kosmodiseako lan guztiak aurrera ateratzeko.*

- Zer da, zure ustez, Kosmodisea 2009-2010eko gauzarik onena? Zer alderdi hobetuko zenituzke?

- *Urte osoko lana da, eta ikasleek hasieratik bertatik izan duten motibazioa izugarria izan da. Lan guztietan buru-belarri jardun dute lanean. Hobekuntzei dagokienean, berriz, simulagailuaren kontua pixka bat erraztuko nuke; guri zail samarra iruditu baitzaigu.*

- Parte hartuko al duzue hurrengo Kosmodisean?

- *Gustatuko litzaiguke, baina ez dago gure esku. Nolanahi ere, laguntzeko prest egongo gara.*

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharrak, kritikak....

- *Aholku moduan, azken planetako epeak luzatzeko proposamena egingo nuke. Azken lana eta denbora gehien eskatzen duena dela kontuan hartuta, komenigarria litzateke denbora gehiago ematea berau egiteko.*